

Magdalena Egaña Elorriaga

*Zumaia,
Gipuzkoa (1931)*

Aurkibidea

Biografia



Zumaian jaio zen 1931. urtean, eta gurasoak ere zumaiaarrak zituen (amaren aita Itziarkoa bazen ere). 1950. urtean (19 urte zituela) hasi zen 'Ortiz' arrain-fabrian lanean, eta bertan jarraitu zuen 25 urtez (1975. urtera arte). Antxoia eta atun kontserbak nola egiten ziren azaldu du, baita beste hamaika kontu ere antzinako Zumaiaz eta bizimoduaz.

Zintak

ZUM-058

- **Proiektua:** Zumaiako hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkue Ibarbia, Xabier - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2008-09-29
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Ama Maria Elorregi eta aita "Txaletekua"

- **Erref:** ZUM-058/002
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:01:40. **Bukatu:** 00:03:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:

<p>Gurasoak zumaiarrak zituen. Ama ogia banatzen ibiltzen zen ahizparekin batera. Gizon batek "San Martin txikiaren alaba" dietu zion behin, baina normalean Maria Elorregi deitzen zioten. Aita "Txaletekoa" zen. Etxeak berak Talaimendi zeukan izena. Lantokian, Yeregirenean, Migel "tornerua" deitzen zioten denek.</p>

2. Jaiotetxea eta umetako jolaslekuak

- **Erref:** ZUM-058/003
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:03:40. **Bukatu:** 00:06:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Bera Ardantza bideko etxe batean jaio zen. Bera txikia zela, gora joan ziren hotel Zumaia ingurura eta han jaio ziren ahizpa eta beste anai-arrebak, San Pedro kalean. Askok aldatzen zen etxez orduan. Umetan zer ingurutu jolasten zuten. Umetako kontuak. San Juan iturri inguruan asko ibiltzen ziren.

3. Beheko albergara arropa garbitzera

- **Erref:** ZUM-058/004
- **Iraupena:** 0:06:00. **Hasi:** 00:06:30. **Bukatu:** 00:12:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Astelehen goizean beheko albergara joaten ziren arropak garbitzera. Arropaz betetako ontziak (zinkak) buru gainean eramaten zituzten. Nola garbitzen zituzten arropak. Arropa zuriari anila ematen zitzaion bukaeran, kolore ona izan zezan. Aurrekoek nola garbitzen zituzten arropak. Emakume batzuk ia egun osoa pasatzen zuten albergan, neskame gisa euren lana arropa garbitzea izaten zen eta. Lantegietako grasa zuten arropak zepilatu egin behar izaten ziren. Gero arraska garbitu ezean, hantxe geratzen zen zikina.

4. Marinelak albergara garbitzera

- **Erref:** ZUM-058/005
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:14:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Laredo inguruko marinelak antxoatara etortzen ziren inguruetara. Emakumeek garbiketa amaitzen zutenean albergara joan eta bertan garbitzen ziren, bizarra kendu eta guzti. San Juan iturriko ura joaten zen albergara; iturria norberak zabaltzen zuen nahi adina izateko. Lau alberga zeuden.

5. Eskola; umetako lehenengo lanak

- **Erref:** ZUM-058/006
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:14:15. **Bukatu:** 00:15:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Txikia zela mojetan ibili zen eskolan, baina gerra hasi zenean Bilbora alde egin zuten. Gero Mari kalean ibili zen eskolan 14 urtera arte. 11 urte ingururekin Getariara joan zen pare bat aldiz antxoa-lanera, baina bestela 19 urterekin hasi zen lanean.

6. Ortizenean kontserba-lanean

- **Erref:** ZUM-058/007
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:15:40. **Bukatu:** 00:18:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

19 urterekin kontserba lanean hasi zen Ortizenean. Getariara antxoa-lanera joan izan zenetan etxe azpiko sotoetan lan egin zuen. Lanerako jende bila etortzen ziren kaleetan diarka. Ama eta izebak despeskara joaten ziren Getariara. Berak salazoian eta atun-kontserban lan egin zuen Ortizenean. Inguruetako kontserba-fabrikak.

Transkripzioa

- Geo ez. Geo ya lanian hemeretzikin hasi nitxan. Ume zaitzen-ta ta´re eon giñan, ta itxeko umiak-eta´re bai, baiña bestela ya lanian hemeretzikin.
- Hemeretzikin. Ta orduan ere, ya konserba kontu hoietan, edo?
- Bai.
- Hortan ibili...
- Ortizenian.
- Ortizenian. Ta lehen Getaian ta Zumaian ez al ziñan ibiltzen? Zumaian ta´re bazian orduan fabrikak-eta
- Bai, bazan [...] fabrika, baiño ez, ez nitzan ni beste haidxetan ez nitzan behiñ´e jun, Ortizekin ya.
- Ortizekin. Ta Getaian lehen beste...
- Beste zea, soto txiki hoidxek, itxian azpidxan eoten zian. Oan nola dao eroski Getaidxan?
- Bai.
- Hantxen askotan. Hura´re zea bat zan.
- Ta ezaguna zalako hangua eo hangyak eskatuta edo?
- Ez. Etorri iten dia billa, diarra iten zuen.
- Bai, e?
- Bai, bai. Ta antxoba maillan harrapatzen zuenian, etortzen zan kamioi txiki batekin, Periko Gallegok saltzen zitxin, ez dakit apellidua nola zun. Gizon txiki bat ta bozina kanpuan hola, gomazko holakuak, "bo, bo, po, po!". Askotan, zinetik ertentzeako, gabeko zinetik ertentzeako, hura zai. Itxea jun, mantalak o hartu, oiñetakuak o, eta juten zian. Nik despeskan ez nun behiñ´e in. Nik ez. Baiño gure amak eta izekok eta asko!
- Despeska juten zian?
- Despeska juten zian orduan.
- Getaira?
- Getaira, bai. Ta geo hamen bertan´e bai. Hamenguak baiño´re lehen hangyak sartzen bazian, ba, gizon hori etortzen zan billa ta eramaten zitun. Ta geo honea etortzen zianian, hemen bazeon, ba, geo hemen berriz.
- Hemen berriz.
- Bai. Ta zuk despeskan esan dezu... ibili zea konserban.
- Ez! Ni despeskan ez. Ni ya salazoian.
- Beti salazoian?
- Salazoian eta konserba, atuna.
- Ortizenian?
- Bai.
- Ba, hortiz izango zan hamen inguruan haundina, ez?
- Orduan bai. Orduan bai. Lehenotikan euki zun zeak, Getaidxak, nola da hori? Nardin-ta nundik etorri zian? Nola zan hura? Italianua da, ba, hura´re.
- Oliveri?
- Ez. Oliveri da hau, Nardin da bea. Baiña horren aitta zan enkargaua beste fabrika batekua. Orlando. Orlandok jo iten zun hamen antxoba, ez dakit atunik in zun. Ta Caxildonekua esaten zidxoena´re bai, harek ere bai. Harek atun pixkat ere in zun. Behin jardun giñun han-ta. Geo ya Ortiz etorri zan ta hura, harek.
- Noiz etorri zan Ortiz?

- En el año cincuenta.
- Ordura arte ez zeon horrelako haundi...
- Bea, lokal bea baiña, "Probote" o, ez dakit ze esaten...
- Proboste.
- Probostenekuak esaten zidxoan eta...
- Txikiyo?
- Ez. Lokala bea zan, baiño iten zun kantidad txikidxo. Harek ez zun fileteikan iten, ez det uste iten zunik fileteikan. Honek, Ortizek, iten zuan antxoba primaveran, geo udaan atuna ta geo neguan antxoba, zea, olidxotan filetiak.
- Filetiak.
- Bai. Idxa urte guztidzan eoten zan lana. Batzuetan faltatzen zan ahitu in zalako beste berridxa hasi bitartian edo horrela. Baiña bestela...
- Orduan, Ortiz etorri zanian, zu ya zuzenian bertan... orduan sartu ziñan?
- Sartu zan, hura etorri zan Julidxuan o, bai, San Fermiñetan o horrela. Ta ni hasi nitxan dizienbrian. Bai, urte bertan.
- Hasiera-hasieratik.
- Bai.

7. Ortiz fabrikako lan-giroa

- **Erref:** ZUM-058/008
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:18:40. **Bukatu:** 00:21:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Ortiz kontserba fabrikako lan-giroa. Kantuan egiten zuten lanean ari zirenean. Gaztelaniaz abesten zuten gehiena, baina euskaraz ere abesten zuten. Langile gehienak emakumezkoak izaten ziren eta inguruetatik etortzen ziren lanera. Gerora jende asko sartu zen kanpotik. Gizon batek esaten zien 100etik gora langile zeudela.

Transkripzioa

- Ta nolakua zan Ortizeko, Ortizeneko lana?
- Lana? Ba... broma earrakin ta, hurrengo erritan ta, kantua nahikua!
- Bai?
- Ene! Radidxo batek aiña o gehidxo. Gaiña zaben emakumiak gu baiño... ba! Gu gaztiak giñan orduan ta, emakumiak earki kantatzen zuenak eta, lehengo kanta zahar danak kantatzen zian. Kantau asko!
- Bertsuak ere bai, edo...?
- Ez, ez. Bertsuak baiño gehidxo, kantatu.
- Ta euskeraz eo erderaz zian?
- Erderaz gehidxo, baiño euskerazkuak ere bai batzuek ibiltzen zian, baiño erderaz gehidxo, ordun dana erderaz.
- Eta, zu, gehidxenbat emakumiak izango zian?
- Bai, gehidxenak emakumiak lanian. Gizasemiak, mutil-koskor batzuk ibiltzen zian gatza karriatzen ta horrela. Ta geo kaldererua ta, latak itxitzen zituna ta, lata montatzen zitunak eta horrela, gizon batzuek. Uan, uan, bueno, uan-uan ez dakit zenbat daben, baiña, geo ya gehidxo eoten zian. Baiño gehidxena beti emakumia.
- Emakumia, eskulana emakumia.

- Bai, emakumiak, bai.
- Eta hamen ingurukuak? Zumaidxa...
- Zumaidxa, Arrua, Zestuatik ere bai etortzen zian. Arruatikan etortzen zan bastante jente. Arrua Goitik´e bai, ta Arrua Errekatik etortzen zan kuadrilla haundidxa, etortzen zian, bai. Bestela... Ta bueno, geo gaiñea Zumaidxan sartu zan jende asko ta orduan, ba, erdaldun asko. Geo in zuna hor, zean, uan zutik daon hori in zun, ta hor ehunetik gora. Bueno, guk geuk ez giñun kontatzen. Han aittona bat eoten zan, beste zeriñik ez zun eukitzen ta, "Zenbat lagun bizitzen zeate?" o "...zaudete hor lanian?" esaten zigun. Ta "Ez deu kontatu". Ta "Nik bai. Ehunetik gora zeate!".
- Hori izan zan gehien...
- Bai, horrela, antxobetan-ta ta... Eske lehenoz ez zan oan bezela lana iten. Lehenoz emakumiak arratsaldian´e juten zian lanea. Geo ya seguruak eta hasi zianian, ba, ya diferente. Zortzi ordu behiñipein iñ in bihar seguruak paatu-ta iteko, baiño lehenoz emakumiak arratsaldian asko juten zian.
- Han hasieran goizian lan, o etxian...
- Itxian in ta geo ya umiak pixkat koskortuta zazkanak o batek bestiai o... Zure izekok´e hantxe juten zian.
- Ze izeko?
- Garbiñe, Manolita eta hamen, Matilde.
- Matilde, bai. Han ibilitakuak.
- Bai! Nahiko parre iten zuen haidxek, gaztien aldamenian jarri ta...

8. Ortiz kontserba-fabrikan 25 urte

- **Erref:** ZUM-058/009
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:21:15. **Bukatu:** 00:24:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Ortiz kontserba-fabrika non zegoen lehenago. 1954an lekuz aldatu zen. Hasiera batean ez zegoen kontraturik eta orduko ordaintzen zieten. Etxean ere egiten zituzten kontserba-lanak. Hasieran gabonetan bakarrik izaten zituzten oporrak, baina gerora lan-baldintzak hobetzen joan ziren. 25 urte egin zituen Ortiz fabrikari, 1950ean hasita. Ortiz fabrikaren jabeak Ondarroatik etorriak ziren.</p>

Transkripzioa

- Ta fabrika nun zan lehen? Oain, geo, esan dezu...
- Mataidxa nola bota zuen ta in zuen itxia? Hiru teillatokua? Zelaiena o zan. Oaindik ez da ba urte asko bota duela hura! Matai atzian.
- Matai atzian, bai, bai, bai, bai.
- Hiru teillatokin.
- Bai, bai.
- Hiru pabelloi. Goidxan. Hantxen. Goidxan kalderak-eta zaben...
- Talaimendi barreneko zean...
- Bai. Talaimendidxan barrenian, itxia in duen horretantxe. Itxia, hor azkena in zuen itxe hartan.
- Orduan hasi-hasi hantxe izan zan?
- Han in nitzan, hasi han in nitzan. Eta geo honea, cincuenta y cuatro usten

det jun giñala. Cincuenta y cuatron hamen hasi giñan, ta uan arte. Urteak jungo dia, urteak jungo dia berridxan ai diala.

- Eta esan dezu, hasieran holan, kontratuak eta holako, ez zala... oain bezela ez zala.

- Ez! Ez zan orduan! "Lanik ba al dao?" Ta, "Bai". Ta jun ta... "Itxian ba al dakazue ahizpikan o horrela laneako moukua?", ta "Bai" o "Ez", ta.

- Eta kobratzen zan eguneko o?

- Orduko, orduko.

- Eta? Zenbat?

- Uno veinte, o ez dakit zer orduan. Ta geo antxobeta freskuan gehidxo! Hori filetian. Antxoa ta atuna gehidxo paatzen zuen, gehidxo paatzen zuen.

- Geo itxian ta iten al zenduen zuek ´e konserba?

- Bai. Bai, bai. Atuna, atuna ez, baiña antxoba bai.

- Ez al ziñaten aspertu lanian ta...

- Ez, ez, behiñ ´e, behiñ ´e, behiñ ´e. Behiñ ´e aspertu ez atunakin eta ez antxubakin jaten-ta, behiñ ez, ez, ez. Antxobakin gaiñea, zailla da aspertzen!

- Jaten bai, baiña prepaatzen esaten det. Lanea bai, baiña etxeako...

- A! Bueno! Baiño itxian, bai, iten giñun. Noixian behiñ in ta bale. Hurrengo bakazidxuak genduzkanian o beste batzuek eta horrela. Baiño gu beti.

- Eta bakaziyuak eta izaten zian?

- Bai. Gabonetan iten giñun egun batzuek, aste bete eo horrela iten giñun. Ta geo ya, ya geo ya ez. Geo ya zeak eta hau ta jarri zian, seguruak eta...

- Seguridade Soziala ta.

- Bai, bai, bai, bai, bai.

- Zu beti hor ibili zea orduan...

- Ni bai, bai, beti.

- ...Ortizienian eta lanian eta urte asko, orduan?

- Bai. Dizienbrian cincuentatikan setenta y cinco arten, erdira arte.

- Hogeita bost urte.

- Bai. Ta geora ´re ibili nitzan, geora, baiña hor ya fijo ez, atunetan ta hola. Beste hiru bat urte o in nitun.

- Eta Ortiz zer zan, kanpotik etorritako fabrika, edo?

- Zeakua! Ondarrutikan, honea Ondarrutik etorri zan. Ez dakit Ondarrutarrak dian o nola dian. Hori ez dakit nola...

- Eta erosi in zuen hemengo...

- Hura ez. Hura ez zan. Hura zean, alkilerrian. Zelaiena zan hura iñundikan ´e. Hura salduko zan uan itxia iteakuan seguruna. Hori bai, hori beria.

- Hori beria, ya beaiek indakua.

- Bai, bai, bai, bai. Hori bai. Hori beria.

9. Antxoa prestatzeko prozesua: "salmueran" garbitu, burua kendu

- **Erref:** ZUM-058/010
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:24:35. **Bukatu:** 00:29:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

Lehenago antxoa asko harrapatzen zen. Getarian antxoa asko hartzen zenean, han behar adina saldu ostean Zumaiara ekartzen zuten fabrikara barkuan edo kamioian. Antxoa jasotako egunean bertan preparatzen zen. Lehenbizi, tinetan jartzen zen gatzetan. Burua kendu eta tamainaren arabera sailkatzen ziren gero latetan sartzeko. Antxoa "salmueran" nola garbitzen zen.

Transkripzioa

- Arrantzan ta´re orduan moimentu pixkat´e izango zan. Eta barkuetan [...] o ta...
- Bai. Zeatikan horrela, urte haidxetan gaiñea´re antxoba asko harrapatzen zan. Eta iten zuen benta, getaiarrak eta bertan benta, Getaidxan. Eta transportia eta nola ez zeon hanbeste, ba, orduan zeak iten zuen, baforak, berta, [...] etortzen zian. Ta geo hamen hartu, hamengo zeak, kamionak, ta eramaten zuen fabrika.
- Hamen deskargatzen zan?
- Hamen, bai. Han Getaidxan zai eon beharrian. Beti ez! Hori nuixian behin, asko zanian eo, han konpradorak erosten zuan, eta marea ona ta itsasua ´re ona, ta orduan etortzen zan honea bat o bi barko eo, ta bestela kamionez ekartzen zuen.
- Eta zuen lana zein zan?
- Guria, ba, antxobetan burua kendu, estreñengua. Ta geo ya aprobatzen zanian, edatetuok o, gaztiauak eta burua kendu, ta guk zean ipiñi, gatzetan, latan, salazoian, enpaketatu, banan-banan, dana.
- Baiña hori gero izango da, ez?
- Ez, ez, ez, ez, ez. Egunian bertan.
- Egunian bertan?
- Burua kendu ta segituan. Gozuo da gaiñea´re.
- A, bai?
- Bai.
- Orduan ekartzen zan, osorik etortzen zan...
- Bai, bai, bai... etortzen zan...
- Mahai gaiñea botata o kajetan?
- Ez, fiñak, fiñak zian. Etortzen zan kajetan, otarretan, eta tiñak. Tiña haundidxak, mahai hau baiño estuo, baiño horrela, haundidxak eta zean, gatza. Mahaian bota gatza dana, hustu kaja, berriz bota gatza, dana nahastu ondo gatzakin, beste kajaka bota berriz ere gatzakin dana ondo nahastu, bete arten tiña. Ta ya behalaxe nahasten zan. Askotan baita mahai gaiñea bota, gatza bota, ta seituan hasi buru kentzen´e bai. Segun jendia zai bazeon o horrela bai.
- Eta hasierako lana orduan zan?
- Burua kendu estreña.
- Burua kendu.
- Bai.
- Eta utzi, laga.
- Ez, ez, ez. Burua kendu.
- Burua kendu ta laga.
- Ta iten zan zeatu, apartatu. Hiru klase o: txikidxa, haundidxo ta haundidxauak. Tercera, segunda ta quinta. Cuarta´re bai. Quinta gitxidxena iten zana, txikidxena. Geo iten zian latak ere, ez zan dana igualakin betetzen. Haundidxak bere marka eramaten zuen gaiñian. Batzuek... Cuartak eramaten zitun hiru, hiru antxoba gaiñian. Eta zeak, tercerak eramaten zitun bi. Ta haundi-haundidxa zanak, batez. Ondo sartzen zan bea hura, ta ez zan ipintzen. Ta geo garbitzen zanian´e latak...

beno, zearako´re ez, ya kontatzen zian, bagoiak iten zian, ta haidxek iteako´re kontatzen zian. Baiño antxoba iten zan segitu-segituan: etorri, garbitu ta segituan. Salmuran garbitu... Salmura iten zuen beain graduakin. Itxian iten zan patatakin o arrautzakin. Ura ta gatz jarri, ta patata bota, ta flotea ertetzen zunian, bale, ta arrautza´re bai, flotea ertetzen zunian, han garbitu antxobak eta klaro. Baiño itxian izaten zan, ba, gitxi, kilo batzuk, o despeskatik ekarritakua o horrela. Baiño fabrikan ya iten zan salmuera, bere neurridxan iten zan, bai, bai. Neurtu iten zan. Ta guk ikusten giñun nola ibiltzen zan. Zea bat, horrela, tubo bat eoten zan ta barruan termometro bat bezela eo.

- Bai.

- Ta han zeatzen zuen, eta "Eugenio, ¿A ver?", ta beitzen zidxoan ta...

"Ondo! Iturridxa itxi uan.". Aska bat eoten zan ta han gatz botatzen zuen lori-loridxa, [...] eo deitzen zitzakon, lori-ori-loridxa izaten zan, koskorra holaxen, koskor haundidxa. Eta eukitzen zun iturridxa tubo luze batekin ta han dana zean botatzen zun, aska hartan bota gatz bete arten ta segi. Eta geo ya juten zan beste aska batea, salmuera. Han neurtzen zan, ya salmuera ondo zeonian, [...], berriz bete ta preparatu aska gatzakin ta ya ekarri baldietan o mangera, zean mangerakin, lehengo baldiakin.

- Salmuera eramaten zan?

- Salmuera eramaten zan tiñeta, beste tiña batzuetan, antxoba botatzen zan, ba, haundidxa batea, medianua bestea, txikidxa bestea. Ta geo eoten zan han andre bat o bi o, ateatzen genun askaa, ta beste kuadrilla mahaidxetan horrela, latien, banan-banan ipintzen zan. Sardin-zaharra nola etortzen dia kajan? Ba, horrela ez, zuzenian latetan. Horrela iten zan barrillak zienian, horrela danak koruan, batzuetan. Beste batzuetan hola rayan´e bai. Hola iten zan.

10. "Bagoiak" eta "korbatak" nola egiten zituzten

- **Erref:** ZUM-058/011
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:29:20. **Bukatu:** 00:31:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Antxoa latekin "bagoiak" nola egiten zituzten. Gerora "korbatak" egiten zituzten, plastikozko lata altuagoetan denak batean jarrita.

Transkripzioa

- Eta filetiak beste lan bat du, ordia, ezta?

- Bai. Ta geo hori iten da zeatu, bagoiak deitzen zitzakon. Ba, hamar, luzian hamar eo, ta hirukua, hiru, tartian sartuta iten zian. Danak honela zean ez, honela tartian sartzen zan. Eta hiru illarako, hiru hamarrekoe iten zianian, tabla jarri gaiñian ta latari egurrezko tapa. Eta zea batzuek zeatzen zian, tako batzuek, horrela, egurrezko tako batzuek ura gaiñian jarri ta geo bi tabla. Ta haren gaiñian berriz, lata. Berriz haura betetzen zianian, berriz´e igual, tablak eta, igual ipiñi ta ya altura, zeure zea hartzen zuenian, gaiñea latak haundidxak jeneralian izaten zian hamar kilokuak, ta lau bat o hola hartzen zitunian, beste bagoira iten zan.

- Bagoia deitzen zan?

- Bagoia deitzen zitzakon horrei, bai.

- Lata...

- Lata montoi... bai, pilla haundidxa iten zan. Eta geo iten zan, bajatu iten zan hura. Ta berriz bete. Ta geo ya azkenengo urtietako ikasi zuen zea batzuek, korbatak deitzen giñun guk. Geo hamen gaiñea plastikokuak hasi zian. Lehenotikan burnizkuak´e ibili zituen. Horrela alto batzuek, bitan rellenatu beharrian lata, ba, behin. Ya bukaera dotoria, tripik gabe, ta. Ondo, oso-oso-osuak, earki ipini ta ya zeatzen zan. Geo garbitzen-ta lan haundidxa eukitzen zuen.

- Ta korbata zerrei deitzen zitzakon?

- Zeeri, plastikozko latai ipintzen giñuzen hor zea bat. Bestela in behar izaten zan... Lata asko bajatzen zan, ta bete berriz. Ta geo berriz´e zeatu, bukatzeko berriz. Ta horrela batian iten zan jenealian.

- Betegarriya eo?

- Betegarri batian, rellenua, ta bete gabe batian iten zan dana. Ta ordun, "Ekarri korbatak!" neska-koskorrai o gu baiño gaztio zianai, ta ekartzen zezkun. Bestela toki asko hartzen zuen ta horrela mahai azpidxan jartzen zizkun zeak, bukatu arten handikan segi.

11. Antxoa "filetetan"

- **Erref:** ZUM-058/012
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:31:30. **Bukatu:** 00:34:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

<p>"Filetetan" nola jartzen zuten arraina. Antxoak denbora asko behar du "kuratzen". Udaberrian egin eta udazken aldera hasten ziren filetetan jartzen. Emakume nagusienek trapearekin arraina garbitu eta beraiek latetan jartzen zuten oliotan. Antxoak nola garbitzen ziren; burua bakarrik kentzen zitzairen ("zakatza" bertan utzita) eta gainontzekoak fileteak egiterakoan.</p>

Transkripzioa

- Ta geo antxobak berriz iten da, bastante denboan eon behar du, hiru bat hillabete o bai [...] da. Bueno, segun lana´re nola daon, ta egualdixak ere zeatzen du. Ta geo berriz, ba, lelengo iten zan trapuan dana. Mahai batian, hamarreko, hamar lagun. Bi emakume hor [zaharrian] eoten zian, bi emakume edadetunak, eta haidxek trapeakin garbitu ahal zuen dana. Bai, egun guztidxan segi garbitzen trapeakin. Eta geo "bota arraidxa!" esaten giñun guk, eta tak!, txorta horrela. O bestela, bandejan bazakaen, beno, bandejan. Tapak izaten zian bandejan. Han luzatzen zigun eta guk berriz garbitu ondo, buztana ebaki, bizkarra iriki trapeakinñ, ya filetia atea eta kutxilluakin ebaki eta... Eukitzen giñun lehenengo honela, montoian, bandejan. Ta geo ya direkto, hasi giñan direkto ya latian sartzen.

- Ta horrek klase diferentia izango zian, ez?

- Latak. Txikidxo bazan arraidxa, ba, lata txikidxaua. Eske, arraidxa haundidxo baldin bazan, lata haundidxaua. Bai.

- Eta hor ya...

- Hor ya olidxuakin ipiñi, itxi, ta lixto! Ya... Baiño, antxobak denboa asko bihar du zeatzen, kuratzen.

- Ta udaberridxan eiñ...

- In ta, bai... Geo batzuetan Agostuen azkenian-ta ta´re, o atunak fallo eman zula ta bai, baiña gehidxenian udazkenian gauian hasten zan eiten hura. Orduan atuna.

- Eta tripa noiz kentzen da?

- Ez! Garbitzen da diferente. Itxian garbitzen dan bezela ez da garbitzen fabrikan. Iten zako buelta eman buruai ta zakatza... Zuk jakingo dezu, ba, zer dan zakatza? Zuen amak ere iten du ta hala ingo du. Hamen goiko hezur honi, ba, osoikan laga eta ertentzen dunak erten. Ta geo garbitzen danian, berta, [...] ta barruan eukitzen du, ez didxo kalteik iten.

- Hori gero.

- Hori gero. Filetia iteakuan kutxilluakin honela zeatu ta tarrata ebaki ta juten da.

- Buruakin bakarrikan. Burua...

- Burua, bai, burua! Heldu horrela goi aldetik eta burua kendu, hegats hura han gelditu didxela. Ta geo hegatsa onena dakaen hoidxek gaiñian, latian, azkenian haidxek ipini.

- A, bai? Politenak.

- Elegantiak. Elegante juteko, bai.

12. Atuna latetan jartzeko prozesua

- **Erref:** ZUM-058/013
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:34:05. **Bukatu:** 00:35:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

<p>Atunaren prozesua askoz azkarragoa da, goizean prestatu eta gauerako jateko prest egoten baita. Atuna ekarri eta matxetearekin kentzen zioten burua eta tripak ere kendu egiten zitzaizkion. Gero, binagretan jarri beharrekoa makinarekin egiten zen. Bestela, lehenbizi egosi eta gero frijitu egiten zen ondoren latetan sartzeko. "Baño Maria" eman eta jateko listo.</p>

Transkripzioa

- Atunak beste lan bat du, ordia, ezta?
- Atunak, bai. Atunena azkarro iten da. Atuna goizian sartu ta gabian jateko lixto dao. Atuna bai.
- Zer da, egosi ta...?
- Bai, egosita o prijituta. Bueno, lehenengo hura´re, uan beste mou batea, beste ontzi batzuk ta beste gauza batzuk dazke. Baiña guk iten giñun etorri ta harei´re burua kendu. Matxetekin lurrian jotzen zuen emakumiak abilidadia zakenak, ta indarra. Bi zartada o eman ta mahai gaiñian burua kendu ta tripak´e bai, tripak ertentzen didxoe, osoik ertentzen didxoe. Zeoze-zeoze gelditzen zako, baiña gitxi. Eta geo ya zearako, segun ze latetako, olidxotako dan o binagretako dan, binagretakua makina batian ebakitzen da. Egosi tajada osuak iten dia eta geo prejitu, segiduan prejitzen da. Ta geo sartu latan, "baño maria" eman ta hoztutzen danian, listo jateko. Antxoak lotan eon behar dun bezela, atuna goizian sartu ta illuntzian ya listo.
- Jateko.
- Jateko listo dao.
- Eta dana Ortizenian eiten zan? Egosi ta latan sartu ta dana.
- Bai, bai, bai, bai. Guk dana, osoik, bertan. Etortzen zan atuna osua ta ertentzen zun ya latian, kajan sartu ta kamioian.
- Kajan sartu ta enbalatu ta dana.
- Dana, dana, dana.

13. Mutikoen lana fabrikan

- **Erref:** ZUM-058/014
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:35:35. **Bukatu:** 00:36:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Ortizenean mutikoak ere ibiltzen ziren lanean, batez ere gatza karriatzen, kajak egiten edo bestelako lanetan laguntzen.

14. Latak nolakoak izaten ziren

- **Erref:** ZUM-058/015
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:36:35. **Bukatu:** 00:37:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Latak lehenago nolakoak izaten ziren. Euren garaian latek bi palillo eta giltza bat izaten zuten. Azken urteetan makina bidez ixten zituzten latak.

15. "Ekitza": "salmuera" egiteko erabiltzen zen gatz lodia

- **Erref:** ZUM-058/016

- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:37:50. **Bukatu:** 00:38:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

"Salmuera" egiteko gatz lodi-lodia erabiltzen zuten, "ekitza" deitzen ziotena. Batzuetan Pasaiaetik ekartzen zuten eta beste batzuetan Getariara etortzen zen barkua eta handik ekartzen zuten.

16. "Sakatza": arrainaren lepoko hezurra

- **Erref:** ZUM-058/017
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:38:45. **Bukatu:** 00:39:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Natura » Flora

Laburpena:

"Sakatza": arrainaren lepoko hezurra.

17. Umetako jolasak: sakaponetan, poto-potoka, erten-ertenka...

- **Erref:** ZUM-058/018
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:39:25. **Bukatu:** 00:41:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak: sakaponetan, poto-potoka, sokasaltoan... Udazkenean "trenadios"-ka ("tres navíos") jolasten zuten. Erten-ertenka nola jolasten zuten. Mando-mandoka ere jolasten zuten. Mutilen jolasa omen zen, baina neskak ere ibiltzen ziren. Neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren jolasean normalean. "Trenadios"ka nola jolasten zuten (ezkutatu eta harrapatzera).

18. Udaberrian eta udazkenean komediantek herrira

- **Erref:** ZUM-058/019
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:41:55. **Bukatu:** 00:44:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

Laburpena:

<p>Udazkenean eta udaberrian komediantek etortzen ziren. Amaiaiko plazan eta Beheko plazan egoten ziren. Antxoa diruaren bila etortzen omen ziren

komediantek. Antxoen dirua diru freskoa zen eta sarritan ume-umetatik hasten ziren fabrikara lanera. Inspektorea etortzen zenean umeak etxera bidaltzen zituzten, ez zitzaizkion ikusi. Komediantek zirkoaren antzeko funtzioak egiten zituzten. Etxeko aulkiak hartuta joaten ziren komediantek ikustera. Amaia hotela.</p>

19. Udan erromerietara eta neguan plazara

- **Erref:** ZUM-058/020
- **Iraupena:** 0:04:55. **Hasi:** 00:44:50. **Bukatu:** 00:49:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

San Telmoak eta San Pedroak nola ospatzen ziren. Inguruko erromerietara ere joaten ziren udan: San Prudentziora, Ibañeta, Oikiara. Negu partean jai arratsaldeetan seietako zinera joan eta handik irtendakoan azken hiru piezak dantza egitera joaten ziren plazara. Udaran bandak Beheko plazan jotzen zuen eta neguan Goiko plazan. Garai batean Elgoibartik "jazzbana" etortzen zen. Zenbat pieza jotzen zituzten. Bandaren tarteetan txistulariek ere jotzen zuten. Nortzuk ziren txistulariak. Orkestak kobratu egiten zuen dantzaldia.

20. Maitena eta Amaia zineak

- **Erref:** ZUM-058/021
- **Iraupena:** 0:04:35. **Hasi:** 00:49:45. **Bukatu:** 00:54:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Bi zine zeuden Zumaian: Maitena eta Amaia. Zineko pelikulen iragarkiak non jartzen zituzten. Jaiero joaten ziren zinera. Behin, arrain asko sartu zela eta, arratsaldean lanera joateko eskatu zieten. Zinera joateko korrika pasa omen ziren kalean. Horren inguruko pasadizoa. Zinea ostegunetan, larunbatetan eta igandetan egoten zen. Zer ordutan egoten ziren pelikulak. Inguru guztietatik etortzen zen jendea eta ilara egoten zen sartzeko. Nolakoa zen Amaia zinea. Garai batean, haserrea izan zuten udalarekin eta sarrerak merkatu zituzten: pezeta batean jarri zuten sarrera.

21. Amaia zinea gerra ondoren hasi zen pelikulak botatzen

- **Erref:** ZUM-058/022
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:54:20. **Bukatu:** 00:55:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

Laburpena:

<p>Maitena zinea betidanik ezagutu du. Amaia zinea, berriz, hoteleko antzokia zen. Gerra garaian, ospitalea egon omen zen bertan. Gerora, Kosme alkatea egin zen jabe, eta gerra ondorenean hasi omen ziren pelikulak botatzen bertan.</p>

22. Pelikula italiarrak ikusten zituzten; aktoreen izenak

- **Erref:** ZUM-058/023
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:55:25. **Bukatu:** 00:59:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Pelikula onak etortzen ziren Zumaiaara. Beraiei pelikula italiarrak gustatzen zitzaizkien. Lehengo pelikulen inguruko kontuak. Aktore asko ezagutu zituzten orduan. Aktoreen izenak idatzi bezala ahoskatzen zituzten. Zineko mutilak pelikularen tarteetan futbola nola zihoan iragartzen zuen eta aktoreen izenak esaten zituen. Orduko pelikulak.

23. "Maulixotara" haitzetara

- **Erref:** ZUM-058/024
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:59:45. **Bukatu:** 01:02:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Natura » Flora

Laburpena:

<p>Hondartzan Itzurunen eta Algorrin ibiltzen ziren. Haitzetara asko joaten ziren "maulixotara" (itsas karakola) edo baita egunpasa bazkaria hartuta ere. Lexikoa. Lurreko karakolari "marrakeliñoa" deitzen zioten. Beraiek "hondarra" esan izan dute beti eta baita "ooldixa" ere, gaur egun umeei "alga" esaten duten arren. "Maulixotara" nora joaten ziren. Olagarrorik ez zuten harrapatzen kasualitatez ez bazen.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-08-29

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com